



MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI BURUZKO ABISUA 5999/2024 Zkia

Sortutako data eta ordu lokala: 2024/02/08, 15:30.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2024/02/09, 10:30
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

◆ Zergatia:

Haizea: haizeguneetan
Haizea haizeguneak ez diren tokietan
Itsasaldeko Arriskua: Kostaldean inpaktua
Itsasaldeko Arriskua: Nabigazioa lehenengo bi milietan

◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Osteguna, hilak 8:

- Alerta Laranja haizeagatik Bizkaiko haizeguneetan 15etatik 21etara ordu lokala.

Bizkaiko haizeguneetan hego/hego-mendebaldeko haize-boladek 120-130 km/h-ko abiadura gaindi dezakete, batez ere mendebaldeko mendi inguruetan eta kostaldean.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 03etatik 24etara ordu lokala.

Haizeguneetan hego/hego-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan non puntualki 110-120 km/h-ko abiadura gaindi dezaketen.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Bizkaian eta Araban 06etatik 24etara ordu lokala.

Bizkaia eta Arabako haizeguneak ez diren tokietan hego/hego-mendebaldeko haize-boladek 80 km/h-ko abiadura gaindi dezakete, bereziki mendebaldean. Bestalde, Gipuzkoako haizeguneak ez diren tokietan haize-boladak 60-80 km/h ingurukoak izan daitezke.

Ostirala, hilak 9:

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 03etara ordu lokala.

Haizeguneetan hego/hego-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan. Bestalde, Bizkaia mendebaldeko haizeguneak ez diren tokietan haize-boladek 80 km/h-ko abiadura gaindi dezakete.

Larunbata, hilak 10:

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Kostaldean inpaktua** 04etatik 06etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 2.5-3 m ingurukoa izango da. Olatuen arteko periodoa: 10-11 s. Itsasgora 04:44an (ordu lokala) 5.04 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 4.79 m + meteorologikoa: 0.25 m). Gainezka egiteko indizeak: $I=5.8$ m eta $I_{max}=6$ m. Itsasaldia oso bizia izango da, beraz, itsasgoraren inguruan baliteke itsasoak itsasertza gainditzea, olatuen altuera edozein dela ere.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala.



Olatuen altuera adierazgarriak 3.5 m-ak gaindituko ditu arratsaldean, pixkanaka igo egingo da eta gauean baliteke 4-5 m ingurura iristea. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2 m inguruko olatuak altxatuko ditu, gero handitu egingo dira pixkanaka eta azken orduetan 3.5 m ingurukoak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 10-11 s, pixkanaka igo egingo da eta azken orduetan 14 s ingurukoa izango da. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, 4-5eko indarrarekin eta 6ko tarteeekin. Itsaskira edo itsaski handia eragingo du, itsaso zakarreko guneeekin.

◆ **Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:**

Haizeguneetan neurtutako haize-bolada maximoak (km/h):

Orduña: 162.6

La Garbea: 159.1

Punta Galea: 141.1

Cerroja: 133.7

Matxitxako: 131.9

Sigue la información en Twitter-Infomazioa Twitter-en jarraitu.

@112_SOSDeiak @Euskalmet